

# Perigolan

Orioko Herri Ikastolako aldizkaria / 2010eko abendua / 4. zenbakia



**Marijose eta Miren  
andereñoekin hizketan**

# Pergolako oroitzapenak

Orain urte gutxi irten nintzen Ikastolatik, 16 urte nituela, hain zuzen. Batxilergoa egin, unibertsitatera jo eta ikasketak bukatu bezain pronto, hara non nagoen berri, nire betiko Ikastolan! Horrexegatik, idatzi hau egiteak badu bere xarma, lehengo oroitzapenak gaurko bizipenekin lotzeko aukera ematen baitit.

“Ama, soinketako maisu izan nahi dut!”, esaten omen nion artean 11-12 urte nituenean. Nork esan behar zidan niri txikitari nuen nahia urteetara bizigai bihurtuko zitzaidala, alajaina!

Gogoan ditut ikasle nintzeneko hainbat bizipen, egia esan ez daude horren urrun; eta egun sentitzen ditudanak sarritan ordukoekin alderatzen ditut. Esaterako, buruan dut Ikastolako zuzendari Iñaki Beraza San Pedron arraunean jarduten zen garaian, soinketako eskolara elastiko horiarekin joaten ginekoea, berari adarra jotze aldera. Aurten, Kontxako estropadako bihamunean, hara non etorri zitzaizkidan ikasleak elastiko horia soinean zutelarik; haiek ikustea eta nire ikasle garaiak gogoratzea bat izan zen.

Bestalde, askotan gogoratzen ditugu ikasle kontuak irakasle gelan. Lagunek ere galdetzen didate noizbehinka: “Zer moduz bizi dituk gure txikitako andereñoak?” Egia esan, arraroa egiten zaie lehen genituen irakasleak gaurko nire lankideak izatea; baita niri ere hasiera batean, ez pentsa!

Bukatzeko esan nahi dut beti egongo naizela Ikastolari eskerrak emateko moduan, bertan hazi eta hezi naizelako; eta, orain, nire gogoak eta lanak bertako ikasleak hazi eta hezteko aukerarekin naizelako. Ikasle nintzelarik, irakasleengandik ikasten jardun nuen; horrela, ikasten ikasi eta irakasten ikasteko aukera hautatu nuen. Orain, ikasleei irakasteko egoeraren aurrean nauzue. Gauzak horrela, nire nahi eta lan guztia ikasleekin joratu eta gozatzea dut helburu, nire Ikastolan egoteak eskatzen duen maila emateko irrikaz. Eskerrik asko!

Iñigo Mujika



## Jada badugu igande arratsalderako plana!

Inoiz gertatu al zaizu zer egin jakin gabe egotea? Edota zinera joan nahi, baina urruti dagoelako edo garestia delako aukerarik ez izatea? Arazo horiek konpontzeko asmoz, antolatuko duguz zinea. Izan ere, asteburuetan herrian ekintza gabezia dagoela nabaria da, neguan, batez ere. Eguraldi txarra egiten duenean, zer egin jakin gabe egoten gara, eta askotan ez gara etxetik irten ere egiten. Horregatik, zinearen bitartez, igande arratsaldeko hutsuneak betetzeko beste modu bat proposatu nahi diegu herriko gazteenei, gainera.

Bestalde, ezin dugu ukatu zinearekin ateratzen

dugun dirua oso ondo etortzen zaigula DBH amaierako bidaiara joateko, eta horregatik ere egiten dugula.

Baina, zinea antolatzeak ere badu beste alde ona guretzat: etorkizunerako prestatzen laguntzen digu, hau antolatzea erantzukizun handia baita, eta fundamentua behar baita dena ondo lotzeko. Gainera, auzolanean aritzen gara; hau da, besteentzat taldean egiten dugu lan, eta hau ere oso garrantzitsua da.

Halaber, egiten dugun lanaren bidez, espero dugu gazteagoentzako eredu izango garela; eta aurrerantzean ere igande arratsalderako planik ez dela faltako herrian.



## Ikastoletan ikasleak prestatuagoak? Bai noski!

Hezkuntzaren unibertsoan, azken urteotan, hitzetik hortzera erabili ohi dira kanpo-ebaluazio mota ezberdinen izenak: PISA, Ebaluazio Diagnostikoa, IDEA, Ikastolen arteko ebaluazioak... Guztien egitekoa honakoa da: ikastetxean jarduna ebaluatu, eta behin emaitzak eskura izanda, gainontzeko ikastetxeekin konparatu. Hala ere, ebaluazio orenen helburu nagusia zein den argi izatea komeni da; alegia, hobekuntza tresna gisa erabili behar dira, eta hobetze planen oinarri izan behar dute.

Orioko Herri Ikastolak kanpo-ebaluazioak bere Hezkuntza Proiektuan txertatuak ditu hobetze-tresna gisa. Dagoeneko ikasturteroko ohi-tura bihurtu dira ikas-maila ezberdinetan ikasleek egiten dituzten azterketak, batetik;

eta gurasoek erantzuten dituzten inkestak, bestetik. Emaitzak kontu handiz aztertzen dituzte irakasleek, Ikastolako Zuzendaritza Taldeak eta Orientazio Departamentuak lagunduta. Ondoren, Ikastolan lantzen diren hobekuntza planak Hezkuntza Sailko ikuskariari aurkeztu behar izaten zaizkio.

Kanpo-ebaluazioek nahiz hobekuntza planek ziurtatu eta sendotu egiten dute Orioko Herri Ikastolak sorreratik izan duen ospe ona. Izan ere, urteetan eman diren emaitzak zehaztasun osoz aztertu eta beste ikastetxeekin alderatuz gero, Ikastolan ikasten duten ikasleak oso ondo prestatuta ateratzen direla frogatuta geratzen da. Ondorengo datuak argiak dira:


- **LHtik DBHra:** Azken 8 urtean, Orioko Herri Ikastolako Lehen Hezkuntzako ia ikasle guztiak (%99,37) DBHra pasatu dira; Euskadiko ikastetxeetako batez bestekoa (%95,28)\* baino 4 puntu gehiago (\*Iturria: Hezkuntza Saila).

- **Graduatu titulua:** Denbora tarte berean, Orioko Herri Ikastolako ikasleen %96,31k graduatu titulua lortu dute DBHn, Euskadiko ikastetxeetako batez bestekoa (%87,71)\* baino 8,6 puntu gehiago (\*Iturria: Hezkuntza Saila).

- **Selektibitatea:** Selektibitateko hauta-proben emaitzen arabera, Orioko Herri Ikastolaren jarraipena den Oteitza Lizeoko ikasleen %96,61ek azterketa gainditu dute, Euskadiko batez bestekoa (%86) baino 10 puntu gehiago.

- **Ebaluazio Diagnostikoa:** Eusko Jaurlaritzak Euskara, Gaztelania eta Matematikako kompetentziak neurtzeko erabiltzen duen Ebaluazio Diagnostikoaren arabera, Euskara eta Matematika arloetan Orioko Herri Ikastolako ikasleak Euskadiko batez bestekoaren oso gainetik daude, eta Gaztelanian batez bestekoarekin berdinduta. (Iturria: ISEI-IVEI). Datu hauek azken bi urtekoak dira.

Ikastolaren helburu nagusia ikasleak bizitzarako ondo prestatzea da, eta lan horretan bide onetik goazela zalantzarik ez dago. Haatik, Ikastola osatzen dugun guztiok garbi dugu hobetzen jarraitu behar dugula, ahaztu gabe lan onaren formula zein den: guraso eta irakasleen inplikaziotik elikatzen den hezkuntza eredu propioa.



# kutxa



## Hamaika pauso, asmo bakarra: Akordioa

Ikastola eta Udalaren arteko akordioaren harira, irailaren 29an, alkateak izenpetutako idatzi bat banatu zen etxe guztietako postontzietan. Bi egun geroago, **KARKARA** aldizkarian, idatzi bera argitaratu zen *Gaia emanda izeneko atalean, Beharrezkoa al da Udalaren eta Ikastolaren arteko hitzarmena?* galderari erantzunez.

Ikastolara eta Hezkuntzara bideratutako dirulaguntzen inguruan alkateak idatzitakoak onartezinak zirela ikusita, mobilizatzeari ekin genion, geure

burua defendatu eta Hitzarmen Historikoa berreskuratzeko asmoz. Hona hemen orain arte egindakoak:

- **Urriaren 20an**, Orioko Herri Ikastolako lehendakari ohi guztiek (Antonio Campos, Eugenio Garmendia, Jose Antonio Lertxundi, Jose Mari Illarramendi, Koldo Olariaga, Joseba Goiburua, Arantxa Aduriz, Pello Orbañanos eta Eneko Dorronsoro) hitzarmena berreskuratzeko adierazpena sinatu, eta horren berri prentsaurreko batean eman zuten.

- **Urriaren 22an**, Udala eta Ikastolaren arteko Hitzarmen Historikoari BAI izeneko idatzia banatu zen etxe guztietan. Bertan, akordioa berreskuratzeko arrazoiak azaldu, eta alkateak emandako datu nahasgarriak argitzen saiatu ginen.

- **Urriaren 22an**, firma-bilketa jarri genuen martxan herrian.

- **Urriaren 25ean**, ikasle ohi, irakasle ohi eta guraso ohiek informazio-batzarra egin genuen.

- **Azaroaren 3an**, *Ikastolen finantzazioa eta hezkuntza ereduak* izenburupean, I.

Igeregik eta X. Oleagak hitzaldia eman zuten.

- **Azaroaren 18an**, herriko hainbat eragilerekin informazio-batzarra egin genuen.

**Alkateak idatzitakoak onartezinak zirenez, mobilizatzeari ekin genion, geure burua defendatu eta Hitzarmena berreskuratzeko**



### KUTXA 60.000 euro Ikastolarako

Jakina da Gipuzkoako Kutxak bere etekinetatik portzentaje bat Kutxa Fundazioara bideratzen duela, gizarte ekintzetarako, hain zuzen: Onkologikora, Zientziaren kutxaGunera, kiroltara, etab. Artezkaritzako gurasoen lanari esker jakin genuen Kutxa Fundazioak gizarte ekintzetarako beste atal bat sortu berri duela. Hau dela-eta, beraiekin harremanetan jarri ginen. Ikastolaren izaera eta

egitekoa zein zen adierazi genien, eta, hala, 60.000 euroko dirulaguntza lortu genuen. Hasiera batean, diru hori 8 urtean zehar banatuko zutela uste bazen ere, azkenean, urrian jaso genuen aipatutako dirulaguntza osoa. Ezin da ukatu diru kopuru hau oso lagungarria izango dela Ikastolarentzat. Lerro hauen bitartez, Kutxa Fundazioari eskerrak ematea besterik ez zaigu geratzen.

**Bostetan futbola eta iluntzean dultzaina. Haur eta gazteen zeregina ez da arratsaldeko lau eta erdietan ikasgelan amaitzen. Jarduera aukera zabala dute, gurasoek eta ikasle ohiek parte hartze zuzena baitute ekintza gehienetan. Hortik aurrera, denbora izanez gero, jan ogitartekoa.**

# Lau eta erdietan hasten da



Hamar minutu atzeratu gara. Baina ez nator ume bila pergolara, ez goaz presaka. Arratsaldeko bostak hogeitaxi gutxitan bete-bete eginda daude patio bat eta bestea. Maniobrak egin behar dira inorekin ez jotzeko. Bestela ere zalaparta gutxi zegoenez, baloiak atera dituzte gela barretetik. Hastera doa arratsaldeko lehen entrenamendua: gaur futbola tokatzen da, asteburuan partida duten seinale. Imanol Amasen aginduetara jarri dira haurrak. Ikastolako gurasoa da Imanol eta hirugarren mailako mutilak entrenatzen ditu, asteazkenetan.

#### **Kirola, aukeren errege**

Hirugarren mailan hasten dira haurrak kirolean. Fruta dendan adina aukera dituzte, tamaina

guztietako baloi borobilak, kolore guztietakoak: futbola, saskibaloia, eskubaloia, errugbia, atletismoa, xakea eta esku pilota. Gehiago edo gutxiago, haur bakoitzak bi taldetan hartzen du parte, badira bakarra edo hiru praktikatzeko dituztenak ere. Asteazkenetan zehar entrenamendu bakarra izan ohi dute, ordea, asteburuan jokatu den partidaren arabera. Entrenamenduan ikusten ditugun neska-mutilek bezalaxe, gehienek futbola hautatzen dute. Hogeitaxi ikasleko ikasgela batean bik edo hiruk erabakitzen dute handitan ez dutela Messi, Ainhoa Mateos edo Mikel Aranburu izan nahi.

#### **Gurasoak hezitzaile**

Egoitz Solaberrieta eskola kirolaren koordinatzailea da Ikasto-

lan. Kirolari porrokatua bera, taula txikiz josia du zuzendariaren ondoko bulegoa. Izen ilara luzeak, telefono zenbakiak, autobusak, entrenamenduen ordutegiak, txapelketaren eskemak eta ikasleen izenak dira kirol arduradunaren ezinbesteko tresneria. Letra txikiak proiektu handirako. Halere, pergolara eta kiroldegira laguntzeko astia hartu du. Gurasoen inplikazioaz galdetu diogu eta esker oneko agertu da Egoitz. Ez dira gurasoak bakarrik, ikasle izandakoek ere talde askoren ardura hartzen dutela esan digu. Mikel Narciso, Aratz Dorronsoro, Jon Zamakola (La Salle), Ander Garcia, Jokin Sarasola eta Iñigo Expositoren adibidea jarri digu. “Ez dago entrenatzaileak ordaintzeko dirurik, eta eskertu beharra dago

jartzen duten borondatea; ez da astean behin entrenamendura gerturatzea bakarrik, taldearen ardura hartu behar da”, esan digu Solaberrieta.

Kiroldegira sartu eta Ixabel Iktza ikusi dugu saskibaloian ari diren neskek entrenatzen. Birtartean entrenatzaile diren guraso guztien zerrenda irakurri

**“Ez dago entrenatzaileak ordaintzeko dirurik, eskertu beharra dago gurasoen eta ikasle ohien borondatea” Egoitz Solaberrieta**



## Gipuzkoako Euskal Kantu Txapelketan aurkeztu da Olaxka Ikastolako koroa, eta bigarren postua lortu dute

dit belarrira Egoitzek: eskubaloian Alazne Arrillaga eta Iñigo Tapia; saskibaloian Ixabel Ikutza eta Joxean Rodriguez-Sierra; futboleko Joseba Mantelola, Joxeangel Iparragirre, Fernando Bergado, Juanjo Rubio, Imanol Amas eta Iñigo Agirre; eta atletismoan, Mikel Durandegi eta Aitor Rubio.

Astero-astero kirolean aritzen diren haurren gurasoek laguntzen diete taldearen ardura eramaten. Urte hasieran egiten dute egutegia, eta partida bakoitzean bi guraso joaten dira autobuseko joan-etorrirri laguntzeko.

### Saskibaloia

Orioko Herri Ikastolak hiru saskibaloio talde osatu ditu denboraldi berrian. Hiru urte pasatu dira Zarauzko Saskibaloio Taldearekin elkarlanean lehen taldea sortu zenetik, eta lanaren emaitza agerian gelditu da aurten. Kadete neskek errendimendu multzoan ari dira, Joseba Aldalur aiarra eta Asier Fernandez oriotarraren aginduetara.

Ainhoa Fernandezek eta Ainara Zamakolak dute nesken bi-

garren taldearen ardura, infantil mailako taldearena. Taldea 10 neskek osatu dute, guztiak lehen urtekoak dira, DBH 1ekoak. Aurreko hiru urteetan kadete neskekin egin du lan Ainhoa Fernandezek. Isilean egindako lanak emaitza onak ari da ematen. Garrantzitsua baita behe-behetik egindako lana. Mutilen kasuan, Iker Gurrutzagaren esanetara ari da infantil mailako taldea. Momentuz, emaitza zoragarriak ari dira lortzen.

### Kultur aukerak ere ugari

Gurasoen inplikazio eta ilusioaren erakusle da Olaxka koroa. Duela lauzpabost urte jarri zuen martxan Olatz Zugastik. Geroztik, jai eta ekitaldi dextentetan entzun ditugu kantuan DBHko ikasleak. *Bizirik gaudelako* kantua izango da erre-

pertorioan ezagunena. Azaroan Gipuzkoako Euskal Kantu Txapelketan aurkeztu ziren, eta bigarren postua lortu zuten Donostiako Antzoki Zaharrean izan zen finalean. Lan handia dago, ordea, emaitzaren atzean. Horren adibide, bigarren koroa sortu izana, hasiberriek bideratua. Onintza Manterola dabil zuzendar lanetan.

Horrez gain, antzerkian dabilta bosgarren eta seigarren mailakoak. Eskualdeko jendea txalaparta, dultzaina eta alboka ikasten ari da, astean behin. Astean bitan jende mordoxka juntatzen da Ikastolan bateko eta besteko. Iluntzeko zazpiak dira dagoeneko, argiak apaldu dira, baina ikasgela bateko argiak piztuta daude oraindik.

# “Gizartea aldatzen doan heinean, ikastola ere gizartearen beharretara egokitzen doa”



elkarrizketa

Miren Illarramendiren txikitako andereñoa Mari Jose Garate izan zen. Honek sarritan kontatzen omen dizkio Mireni berau txikia izan zeneko kontuak. Gaur egun biak Haur Hezkuntzako irakasleak dira. Miren Illarramendik bere lankidea eta txikitako andereñoa elkarrizketatu du:

**Beti irribarrez eta haurrak goxo-goxo hartzen ikusten zaitut. Nik ere horrela gogoratzen zaitut. Zuri ez al zaizkizu pilak agortzen?**

Bai horixe, guztioi bezala! Baina nik zorte handia dut. Batetik, gustatzen zaidan horretan egiten dut lan, eta bokazioz bizi dut nire lanbidea; horregatik, eguneroko lanari ilusioz ekiten diot. Bestetik, haur txikiekin aritzeak aparteko indarra ematen dit; izan ere, oso eskertuak dira eta beraien sentimenduak mozturorik gabe azaleratzen dituzte. Gainera, haurrak edozein ekintza egiteko ilusioz gainezka egoten dira gehienetan; beraz, nola izango ditut, bada, pilak agortuta!

**25 urte daramatzazu haur txikien irakasle gisa. Denetik biziko zenuen urte horietan guztietan, ezta?**

Nire ikasleak izandako gazteak kalean, lanean, herriko taldeetan... ikusten ditudanean, harro sentitzen naiz, pentsatzen baitut nire lankideek eta nik neronek gazte horien bizitzan nolabaiteko eragina izan dugula.

Bestalde, ikastolan hasi nintzenean, familia txiki batekin aurkitu nintzen; denborarekin, begira noraino iritsi garen guztion lan onari esker! Egun familia ugaria da gurea, berezko ezaugarri propioarekin: elkar laguntzea, elkartasun giroan.

**Familia handia bihurtzeak zer-nolako onura ekarri dio Ikastolari?**

Ikastola “masifikatuta” dagoela entzun izan dugu, baina pentsatzen dut hori ez dela egia. Zu ikasle zinen garaian, adibidez, talde gutxiago ziren, baina geletako ikasle kopurua handiagoa zen. Orain talde txikiagoak ditugu, eta gaur atzo bezala, ikasleak giro goxoan hezi eta hazten ditugu.

Irakasle aldetik ere kopuruak gora egin du: batzuk orotarrak gara eta besteak inguruko herrietakoak; zu bezala, irakasle gazte asko ere tartean dugu; aniztasunak aberastasuna ekarri digu: ideia berriak, haize freskoa, esperientzia trukeak...

**Nola ikusten duzu 3 urterekin zure ikasle izandako bat orain zure lankide izatea?**

Zu Haur Hezkuntzara lanera zentozela jakin nuenean, ilusio eta emozio handiz hartu nuen berria. Zeren zu niretzat ez zara soilik ikasle ohi bat, Ikastolan izan nuen lehenengo talde hartako ikasle ohi, baik; eta talde hartako ikasleek toki berezia hartzen dute nire oroitzapenean.

**Ni ikasle nintzenean irakasleak esan eta egiten zuenaz ikasten genuen. Irakasteko beste modu bat zen hura. Irakaskuntzan gauzak asko aldatu dira, ezta?**

Bai, gizartea aldatzen doan heinean, ikastola ere gizartearen beharretara egokitzen doa. Egunerokotasunean oinarritzen gara, eta ikaslea da bere ikas-

**“Atseginena hurrekin dudan eguneroko harremana da; pertsona tiki bakoitza nola hazten doan ikustea; eta garapenean bidelagun naizela jakitea”  
Marijose Garate**

kuntza prozesuaren protagonista, gu bidelagunak besterik ez gara. Proiektuen bidez egiten dugu lan, eta ikasleak dituen interesetatik abiatzen dugu ezagutza ezberdinen lan-keta.

**Zer da gehien gustatzen zaiuzuna zure lanetik?**

Nire iritziz atseginena hurrekin dudan eguneroko harremana da; pertsona tiki bakoitza nola hazten doan ikustea; eta garapen horretan bidelagun naizela jakitea.



## 25. urteurreneko ospakizunak

1997. urtean ikastolaren 25. urteurrena ospatu zen. Denetik egon zen apirilaren 25eko astean: diapositiba emanaldiak, antzerkiak, kalejirak, mahai-inguruak, Benito Lertxundiren kantaldia eta, nola ez, tripa festak. Argazki hau kalejiran atera baino momentutxo bat lehenagokoa duzue. Hauek dira ezkerretik eskuinera: Joseba Erguin, Jon Lizaso, Ninoshka Gozategi, Asier Zabaleta, Luis Fernandez, Jon Agirresarobe, Iraitz Segurola, Borja Zinkunegi eta Iñaki Makazaga.

40. urteurrena ere gertu dugula eta, argazki zaharrak biltzen hasiak garela esan nahi dizuegu. Sarean jartzeko asmoa dugu, gainera, guztiok gozatu ahal izateko. Etxean halakorik baduzue, eskertuko genuke Ikastolan uztea.



## Agenda

### ABENDUAK 21, asteartea

San Tomas eguna Ikastolan.

### ABENDUAK 23, osteguna

Mari Domingiren etorrera Ikastolara.

### ABENDUAK 24, ostirala

11:00

Gabon eskea kalez kale.

16:30

Olentzero eta Mari Domingiren etorrera herrira.

### ABENDUAK 26, igandea

17:00

Baso sorgindua haurrentzako ikuskizuna (3-10 urte).  
Ikastolako aretoan.

### ABENDUAK 29, asteazkena

18:00

Gaztaina jana pergolan.

Gabon kanten, euskal-jantzien eta estalpeen lehiaketa.

### URTARRILAK 3, astelehena

17:00

Tatxin eta Tatxan haurrentzako ikuskizuna (3-10 urte).  
Ikastolako aretoan.